

Galdera

Nola esan daiteke euskaraz *no hurgar en la herida* gaztelaniazko esamoldea?

Erantzuna

Zauria zirikatu, zauriaren gainean piko egin, zauri ukitu, zaurian hatza/atzamarra/eria sartu, giharrean ukitu...

1/ Lehenik eta behin, ohiko hiztegieta begiraturik, honako hauek aurkitu ditugu:

Elhuyar Hiztegia:

- https://hiztegiak.elhuyar.eus/es_eu/hurgar
hurgar
 - 1 v.pnrl./v.tr. **zirikatu**
anda hurgando en la herida y no se le cierra: zauria zirikatzen ibiltzen da eta ez zaio ixten
 - 2 v.pnrl. (fig.) [*las narices*] (hatza) sartu.
deja de hurgarte la nariz: ez sartu hatza sudurrean (edo **zaurian**).
- <https://hiztegiak.elhuyar.eus/es/herida>
Lokuzioak: hurgar en la herida: zauriaren gainean **piko egin**.
hemos sufrido una amarga derrota, y no quiero hurgar más en la herida: porrot latza izan da, eta ez dut **zauriaren gainean piko** egin nahi.

Zehazki Hiztegia:

- <https://www.ehu.eus/ehg/cgi/zehazki/bila?m=has&z=hurgar>
- (baita <https://www.ehu.eus/ehg/cgi/zehazki/bila?m=has&z=herida> ere)
 - hurgar 1 *t-i* **zirikatu**: *hurgar en la herida, zaurian zirikatu*.
- <https://www.ehu.eus/ehg/cgi/zehazki/bila?m=has&z=llaga>
 - poner el dedo en la llaga, **zauria ukitu**.

Labayru Hiztegia:

- <https://hiztegia.labayru.eus/bilatu/LH/es/hurgar?locale=eu>
1vb. Manosear: ikutu/ukitu, eskua sartu.
Si andas hurgando en la herida, no se te va a curar nunca: Zauria ukitzen bazabiltza, ez zaizu inoiz sendatuko.
- <https://hiztegia.labayru.eus/bilatu/LH/es/llaga?locale=eu>
poner el dedo en la llaga - loc. vb.
giharran ikutu/giharrean ukitu, zaurian ikutu/zaurian ukitu, zaurian piko egin; dar en el quid erdiz erdi jo.
El reportero puso el dedo en la llaga al mencionar la cuestión de la corrupción política: Alkarrizketatzaileak ustelkeria politikoa aitatuaz batera gihar-giharran ikutu eban. (bizk)
Has puesto el dedo en la llaga con tu pregunta: Zure galderak zaurian bertan **egin du piko**. (bat)

5000 Adorez Hiztegia:

- <https://www.bostakbat.org/azkue/index.php?t=llaga&q=3>
poner el dedo en la llaga: zauria ukitu
- <https://www.bostakbat.org/azkue/index.php?t=herida&q=3>
hurgar en la herida: zaurian zirikatu

2/ Beste gune batzuk, lagunarteko euskara eta literatura-tradizioa ere aztertu ditugu lokuzioak aurkitzeko:

2.1/ [Jijaua](#) (euskara «kolokiala» sustatzeko gunea) hiztegiak beste adiera batean jasotzen du 'piko egin':

- <https://ijjaua.eus/hiztegia/piko-egin/>
piko egin
ad esap
hatz nagia altxatuz, erdeinuzko keinua egin.
 - *Hi, zatar hori, ez egin piko aitonari!***en** give the finger, flip the bird.
es hacer una peineta, sacar el dedo.
fr faire un doigt d'honneur.

2.2/ [Euskal lokuzioak sarean](#) (izen handiko bi idazleren laginak):

- <https://intza.armiarma.eus/cgi-bin/intza/bilatu2.pl?eremu1=giltzarriak&hitza1=piko+egin&eremu3=1&fitxa=1>
zauriaren ganean piko egin
Azalpena: gaitz edo nahigabe bat beste baten ondotik heldu
Adibideak:
 - **Zaurin gainen pikoa**
[OIHENARTE, A.](#)
[Atsotitzak eta neurtitzak, 1675.](#)
 - **Zauriaren ganean pikoa**
[HERRI MINTZOA](#)
[Azkue, R. M. Euskalerrriaren Yakintza III.](#)

2.3/ Ereduzko prosa gaur:

- «Hain eskura izan eta, zintzoegi jokatzea zen zauri ganean **piko egiteko** paradaz ez baliatzea».
EPALTZA, AINGERU
Rock'n'roll, (Elkar, 2000), or.: 333